# PRENTSA OHARRA

## Aguraingo Udalak udalerrian proiektatutako instalazio fotovoltaikoak berriz aztertzeko eskatu dio Cañaveras Solar S.L. enpresari

Proiektu horien aurka dagoela adierazi du, eta balio estrategiko handikotzat kalifikatutako nekazaritza-lurra okupatzea saihesteko eskatu du.

25/04/14 Agurain. Aguraingo Udalak Cañaveras Solar S.L. enpresari eskatuko dio udalerrian kokatu nahi dituen proiektu fotovoltaikoak berriz azter ditzala. Hala jasotzen da gaur arratsaldean Batzorde Informatiboan eztabaidatuko den eta biharko deitutako Osoko Bilkuran onartuko den ekimen batean. Cañaveras Solar S.L. enpresak bi instalazio fotovoltaiko proiektatzen ditu Aguraínen. Horietako batek 15,75 MWko potentzia duen instalazio fotovoltaiko bat aurreikusten du, 22,22 hektarea hartuko lituzketen 21.720 panelekin, eta horietatik 14 hektarea balio estrategiko handiko nekazaritza-lur gisa kalifikatuta daude. Besteak, 30,9MWko potentzia instalatua aurreikusten du, 50 hektareako okupazioa gaindituko luketen 48.960 panelekin.

Egoera horren aurrean, Aguraingo Udalak Cañaveras Solar S.L. enpresak bultzatutako proiektuen aurka dagoela adierazi du, oraingoz bere asmoekin jarraitzen baitu Udalak egindako eskaerei jaramonik egin gabe. Horregatik, Udalak eskatu dio balio estrategiko handiko nekazaritza-lurrak ez okupatzeko, eta gune populatuetatik gutxienez 500 metrora dagoen salbuespen eremu bat bermatzeko.

Horrez gain, Aguraingo erakunde publiko, sozial eta ekonomikoei proiektu energetikoak ustiatzeko sortutako sozietatearen jabetzan parte hartzeko eskatu dio enpresari.
*"Udal Gobernuak hainbat eskaera egin dizkio enpresari proiektu hau energia berriztagarriaren hedapenari ekiteko defendatzen ditugun printzipioetan txertatzeko: gure eremu babestuak eta balio estrategiko handiko nekazaritza-lurrak babestea eta energia-ekoizpenaren demokratizazioan urratsak egitea, gure komunitateak proiektuetan parte hartuz. Eta orain arte ezezko erantzuna jaso dugu. Horregatik gaude proiektu hauen aurka "*, gogorarazi du Raul Lopez de Uralde Aguraingo alkateak.

Azkenik, gaur arratsaldean Informazio Batzordean eztabaidatu eta bihar Osoko Bilkuran onartuko den testuan, berretsi egiten da Eusko Jaurlaritzak bere gain hartu behar duela berriztagarrien hedapenean ordena jartzeko betebeharra, gure lurraldearen energia-beharrei erantzungo dien trantsizio energetiko justu eta demokratikoa bermatuko duten deliberazio-prozesuak bultzatuz.

alkatea.raul@agurain.eus

# NOTA DE PRENSA

## El Ayuntamiento de Agurain reclama a la empresa Cañaveras Solar S.L. que reconsidere las instalaciones fotovoltaicas proyectadas en el municipio

### Muestra su oposición a esos proyectos y pide que se evite la ocupación de tierra agrícola calificada como de alto valor estratégico.

14/04/25 Agurain. El Ayuntamiento de Agurain reclamará a la empresa Cañaveras Solar que reconsidere los proyectos fotovoltaicos que pretende ubicar en el término municipal. Así queda recogido en una iniciativa que se debatirá esta tarde en Comisión Informativa y se aprobará en el Pleno convocado para mañana. Se da la circunstancia de que Cañaveras Solar proyecta dos instalaciones fotovoltaicas en Agurain. Uno de ellos prevé una planta fotovoltaica de 15,75 MW de potencia instalada, con 21.720 paneles que ocuparían 22,22 hectáreas, de las cuales 14 hectáreas, están calificadas como tierras agrícolas de alto valor estratégico. El otro, prevé una potencia instalada de 30,9MW, con 48.960 paneles que superarían las 50 hectáreas de ocupación.

Ante esta situación, el Ayuntamiento de Agurain ha manifestado su total oposición a los proyectos impulsados por Cañaveras Solar S.L. ya que, de momento, continúa con sus pretensiones sin atender las peticiones trasladadas desde el Ayuntamiento. Por eso, el Ayuntamiento le pide que se evite la ocupación de tierra agrícola calificada como de alto valor estratégico y que asegure una zona de exclusión de, al menos, 500 metros de distancia a los núcleos poblados.

Pero, además, le insta a la empresa a que permita la participación de los agentes públicos, sociales y económicos de Agurain en la propiedad de la sociedad creada para la explotación de sus proyectos energéticos.

*"Desde el Gobierno Municipal hemos realizado varias peticiones a la empresa para que este proyecto encaje en los principios que defendemos a la hora de abordar el despliegue de la energía renovable: que se proteja nuestros espacios protegidos y las tierras agrícolas de alto valor estratégico y que se den pasos en la democratización de la producción energética con la participación de nuestra comunidad en los proyectos. Y hasta el momento hemos recibido una respuesta negativa. Por eso nos oponemos a estos proyectos"* ha recordado el alcalde de Agurain, Raúl López de Uralde.

Por último, en el texto que se debatirá esta tarde en Comisión Informativa y se aprobará mañana en Pleno, se reitera que el Gobierno Vasco debe asumir su obligación de poner orden en el despliegue de renovables impulsando procesos deliberativos que garanticen una transición energética justa y democrática que atienda a las necesidades energéticas de nuestro territorio.

alkatea.raul@agurain.eus